

EGUTEGIA

Txiki txikia, lodikotea
da euzko egutegia,
baiña mamiñez ta jakituriz
gizon askoren argia;
izar antzera itz egiten dau,
euskalduna, olan, bai da,
gogo onenaz zabalduen dau
zetzunezko dan guztia.

Era osoan, begiraturik
notiñaren barruari,
janari onak eskeintzen dautsez
gizonen osasunari;
esaldi jator, zoragarriak
giza alaitasunari,
ipuin gozoak kontatu ala
biotz irriparreari.

Kristau legean ezin dauz aztu
Kristoren jakituria
ta lur ontako lagun bikaifien
jokabide egokia;
baita be gero, onen artean
dator olerki pitxia,
eder artean gozartuteko
euskeldunen lo maitia.


PAULIN**Deia Egunkariak 1992'ko Bagillaren 19'an****Augustin Zubikarai, atzo, Euskerazaleak'en
Euskal Astean**

BILBAO. Eguenean, atzo, Zubikarai'tar Augustin'ek egin eban berba eta Alkarte onen lanak aztertzean, Egutegiari elan eutsen.

Egutegien munduan berak egindako lan batzuk gogoratu ebazan lenengo Augustin izlari ezagunak: 1932'an Amorebieta'ko Jaungoiko-Zale Erakundean asi zan lanean. Gero Ondarroa'n bertako jazokizunak agertzen ebazan egutegia, lau urtetan argitaratu zan, eta beste batzutan alegiñak egin arren ez eban lortzen argitaratzea. Gero Aldundiak ateraten eban "agenda"n sei urtetan emon ebazan bere jakingarriak. Aurten Augustin'ek berak atera dau "Zeregiñak" deritxon maiko egutegia edo agenda. Guztiok dakigun lez, Euskerazaleak Alkartea'k aspaldiko amabi urtetan argitaratu dauan egutegian be kideko izan da Augustin.

Kondaira labur on egin ondoren, egutegiai buruz lan zabalago bateri ekin eutsen Augustin'ek: Izena, motak, noiztik agertu diran (gaztelaniz 1677'an, Frantzia'n 1571'ean...) baiña Bizkaia'n 1897'an Arana'tar Sabin'ek lenengoa dala diño berak baiña ba-dagoz lenagokoak diran almanake batzuk. 1962'an agertu zan Bilbao'n "Axmutil"ek izenpetzen dauan lan bat. Emen egin eban olako azterketa bat eta onek diñonez, Bizkaia'n lenengo egutegia egin ebana arabar bat izan zan Yose Pablo Uribarri. Bide orretatik jarraitu dau Augustin'ek bere azterketa zeatza eta azkenean geure egutegia aztertu eban.

Gaur Alkartearen Zuzendari dan Zubiri'tar Iñaki'k egingo dausku berba eta Alkarteak egin dauazan beste Ian batzuk gogoratuko dauz.



Augustin Zubikarai